



Enpresa- Ideia bat garatzeko laguntzak, ekintzailetzako proiektuen esparruan

Diruz lagun daitekeen jarduera:

- Negozio-ideia bat aztertu eta garatzeko aholkularitza, edozein jarduera-adarretan eta arduraldi eskusiboko erregimenean.
- Kapitulu honen babespean garatutako jarduerak hiru hilabeteko iraupena izango dute gutxienez
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen laguntza hauetako pertsona onuradunen tutorizaziorako, selekziorako eta/edo akonpainamendurako Egaz Txorierri Lanbide-ren erakunde laguntzailea dela eta, aholkularitza EGAZ Txorierri eskainiko du.

Diru-laguntza kopurua:

- EGAZ Txorierri negozio-ideia bat aztertu eta garatzeko **gehienez 30 diru-laguntza** eskainiko ditu:
 - 18 urtetik gorakoa eta 30etik beherakoentzat, 20 diru-laguntza
 - 30 urtetik gorakoentzat, 10 diru-laguntza
- **Nolanahi ere, proiektuak aurreikusi behar du emakume ekintzaileen % 40.**
- EGAZ Txorierri 15 egun balioduneko epea edukiko du, ebazpena jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita, laguntzak eskuratzen dituzten pertsona ekintzaileei laguntzeko eta/edo tutoretza emateko jarduketei ekiteko.
- Edonola ere, Egaz Txorierriren webgunean (www.txorierri.eu) jakinaraziko da laguntzen behin betiko kopurua eta zenbatekoa, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen denean.

Prestazio ekonomikoa:

- **Enpresa-ideia bat garatzeko laguntza 1.000 eurokoa izango da sustatzaile bakoitzeko.**
- **Zenbateko hori %15 areagotuko da 18 urte baino gehiago eta 30 urte baino gutxiago**



badituzte (eskaera aurkezten duten unean), eta beste %15 emakumeak badira.

Beste laguntza batzuk jasotzea:

- Aurreikusitako laguntzak ez dira bateragarriak izango beste edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk autoenplegua sustatzeko emandako edozein motatako diru-laguntza edo laguntzarekin

Onuradunak:

Kapitulu honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izan ahalko dira eskabidea aurkezteko unean eskakizun hauek betetzen dituzten ekintzaileak:

- EAEn erroldatuta egotea eta benetako egoitza bertan izatea. Betekizun horri eutsi egin beharko zaio, gutxienez laguntza-prozesua amaitu arte.
- Langabe izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian lehendik alta emanda ez izatea.
- Edozein jarduera-adarretako enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko ideia bat izatea.
- Deialdi honen 3. artikuluan aurreikusitako erakundeetako bateko aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozesuan sartuta egotea.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak pertsona ekintzaileei laguntza emateko kudeatutako deialdietako laguntzen onuradun ez izana.

Onuradunak izateko konpromisoa:

Laguntza horien onuradunak izateko, hauxe egiteko konpromisoa hartu behar dute sustatzaileek:

- Euren enpresa-idea aztertzeko eta garatzeko zereginetan arduraldi eksklusiboan jardutea.
- Enpresa-idea bat sortze eta garatze aldera deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek aholkularitza emateko eta laguntzeko finkatutako jarduera guztietara bertaratzea.
- Helburu bererako beste laguntzarik ez jasotzea.



Laguntzak emateko prozesua :

- Eskabidea egiteko epea amaitzen denean, EGAZ Txorierri aztertu egingo du aurkezturiko dokumentazioa, eta bazter utziko ditu deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak.
- EGAZ Txorierri atzera botako ditu eskaerak, laguntza-kopurua eta/edo dagokion partidako kreditua amaitzen denean.

Laguntzak eskatzeko epea eta lekua

Oinarri hauek argitaratzen direnetik 2019ko martxoaren 4ko 13:30era arte aurkez daitezke laguntzen eskaerak eta eskatutako dokumentazioa, hemen:

EGAZ Txorierri (Behargintza Txorierri, SL)

Txorierri etorbidea 46, 13 A

Sondika

Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era.

Aurkeztu behar diren agiriak:

- Eskaera-orria (I. eranskina).
- NANaren fotokopia.
- EAEko errolda-agiria (udaletxean eskatzen da).
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman ez dela egiaztatzen duen agiria (Ogasunean eskatzen da).
- Gizarte Segurantzaren lan-bizitzaren txostena
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egon den aldietako ziurtagiria (Lanbideren bulegoetan eskatzen da).

Diru-laguntza ordaintzeko modua



- **EGAZ Txorierri erakunde laguntzaileak ordainketa bakarra egingo die diru-laguntza jaso dutenei, diru-laguntza ematen denean.**
- **Horretarako, EGZ Txorierri Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak aitortutako funtsak jaso behar ditu aldez aurretik,** tokiko proiektu ekintzaileen esparruan enpresa-idea bat sustatu nahi duten pertsonentzako laguntzak kudeatzeko.
- Era berean, diru-laguntza jaso dutenei laguntzak eman eta ordaintzeko, amaitu egin behar da oraindik ere izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura, baldin eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak emandako antzeko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan abiatu bada.

Diru-laguntza justifikatzea:

- Laguntzen onuradunek jardueren memoria bat aurkeztu beharko diote erakunde laguntzaileari, hilabeteko epean, laguntzeko eta/edo tutoretza emateko prozesua amaitutako egunetik zenbatzen hasita; memoria horretan, enpresa-proiektuaren bideragarritasunaren azterketan egindako lanen xehetasunak adieraziko dira, bai eta proiektuaren bideragarritasunari buruzko txostena ere.
- Laguntzeaz eta/edo tutoretzaz arduratutako erakundeak sinatu beharko ditu dokumentu horiek.
- Diru-laguntza aurreikusitako epeen barruan justifikatu ezean, jasotako diru-laguntza guztia itzuli beharko dute onuradunek; horrenbestez, artikulua honetan aurreikusitako epeak amaitzen badira justifikazioa gauzatu gabe, dagokion prozedurari ekingo zaio jasotako zenbatekoak itzuli beharra adierazteko eta ordaintzeke daudenak eskuratzeko eskubidea galdutzat jotzeko.



Pertsona onuradunen betebeharrak

Pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak izango dira azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2. artikuluan jasotakoak, eta, bereziki, honako hauek:

- Frogatzea diru-laguntza emateko edo jasotzeko bete beharreko betekizunak eta baldintzak betetzen dituela, baita jarduera egin izana ere.
- honako hauen egiaztatze- eta kontrol-jarduketei baiezkoa ematea: erakunde laguntzaileak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- helburu berberarekin beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.
- diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeraren bat, objektiboa zein subjektiboa, aldatu bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.
- diruz lagundutako jardueren helburuari edo izaerari funtsean eragiten dion zerbait bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari.



I.Eranskina: Eskaera Orria

TOKIKO PROIEKTU EKINTZAILEEN ESPARRUAN ENPRESA IDEIA BAT GARATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKAERA (LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN DEIALDIA).

.....jaunak/andreak

..... NAN zenbakiaduenak, bere izenean eta honako helbide

PK udalerria eta telefono-zenbaki

..... hauek dituenak.

Eskanideari gehitu beharreko dokumentuen zerrenda: (X batez adierazi dagokiona)

NANaren fotokopia.

EAEko errolda-agiria (udaletxean eskatzen da).

Lan-bizitzaren txosten eguneratua; hemen eskura daiteke: [www.seg.social.es/sede electrónica](http://www.seg.social.es/sede_electrónica/) / ciudadanos/ servicios via sms/ vida laboral/ acceso al servicio).

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egon den aldietako ziurtagiria (Lanbideren bulegoetan eskatzen da).

Negozio-ideia azaltzen duen memoria (II. Eranskina).

Eskatzaileak eskabidea egiten duenean bete beharreko baldintzak:
(X batez adierazi dagokiona)

Baldintza hauek eskaeran eta aholkularitza-prozesu osoan onartu behar dira:

EAEEn bizitzea eta bertan erroldatuta egotea.

Langabezian egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea.



EGAZ Txorierri, Lanbide baimendutako erakunde laguntzailea, aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozesu batean sartuta egotea.

Aurretik alta emanda ez izatea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere.

Aurreko ekitaldietan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatutako eta ekintzaileei laguntzeko deialdietan jasota dauden laguntzen onuradun ez izatea.

Edozein jarduera-adarretako enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko ideia bat izatea.

Eskatzaileak bere gain hartzen dituen konpromisoak: (X batez adierazi

dagokiona). Konpromiso hauek eskaeran eta aholkularitza-prozesu osoan onartu behar dira:

Bere jarduera bakarra enpresa enpresa-idea garatzea eta egituratzea izatea.

Egaz Txorierri enpresa enpresa-idea garatzeko antolatzen dituzten aholkularitza- edo laguntza-ekintza guztietan parte hartzea.

Helburu bererako beste laguntzarik ez jasotzea.

Beste administrazio batzuetatik edo erakunde publiko zein pribatuetatik eskabide hau egin eta gero lortutako diru-laguntzen berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, baita diruz lagundutako jardueren helburuari edo izaerari funtsean eragiten dion beste edozein egoeraren berri ere.

Egindako jarduerak zehazten dituen azken memoria bat aurkeztea erakunde laguntzaileari, laguntza-prozesua amaitu ondoren eta deialdian ezarritako epean. Behargintza Txorierri jo beharko du memoria hori, eta memoriaren edukiak lan-plangintzaren eta lortutako emaitzen jarraipena egitea ahalbidetu beharko du.

.....-n, 2019ekorenan

Sinatuta:

EGAZ Txorierri, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Ekonomi Garapenerako Zerbitzua, honako hau jakinarazten dizu: Datuak Babesteko Legean agindutakoa betetzeko: Agiri honetako datu pertsonalak honen zerbitzuko fitxategi automatizatueta gordetzeko direla. Nahi izanez gero, datuak ezagutzeko, zuzentzeko eta deuseztatzeko eskubidea erabil dezakezu, EGAZ Txorierri, Mankomunitateko Ekonomi Garapenerako Zerbitzuruaren arduradunari eskutitza helaraziz. Datu hauek erabiltzeko baimena ematen diot, EGAZ Txorierri, beti bere egitekoak diren jardueretarako izanez gero



II. Eranskina: Negozio Ideiaren Memoria Esplikatiboa

1. Sustatzaile taldea

- Talde sustatzailearen ezaugarriak
- Sorrerako aurreko esperientzia eta/edo negozioaren kudeaketa

2. Ideiaren deskribapena

- Garatzen den jarduera deskribatu : zertan datza, balio duena, zetako balio du, norentzat balio du...

3. Ide indartsuak eta ahulak

- Merkatuaren, kanpoko zer zirkunstantzia izan daitezke mehatxua bere jarduerarako?
- Kanpoko zer zirkunstantzia, izan daitezkeen merkatuko aukera?
- Zer aldagai edo bere enpresaren barneko zirkunstantziak ezabatzea saiatzea beharrezkoa den ahultasuna dakarte?
- Zer aldagai edo bere enpresaren barneko zirkunstantziak sendotasuna, bere arrakastari laguntzen diona, dakarte?

4. Negozio aukera eta alderdi berritzaileak

- Zer berritasun / abantailak aurkezten du jarduera konpetentziari